

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Zinema dokumentaleko 17 film lehiatuko dira datorren otsailean Punto de Vista Jaialdiaren zortzigarren edizioan

*Nazionalitate desberdineko 11 film luze eta 6 film labur dira*

Miércoles, 26 de diciembre de 2012

11 film luze eta 6 film laburrek, 11 herrialde desberdinetatik ekarriak, osatuko dute "Punto de Vista", Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdiaren zortzigarren edizioaren sail ofiziala, zeina, Iruñean ospatuko den 2013ko otsailaren 19tik 24ra bitartean. Jaialdia Nafarroako Gobernuak antolatu du, INAAC fundazioaren bitartez.

Hautapen-Batzordeak, guztira, 1.441 film ikusi ditu (782 aurten aurkeztutakoak eta 659 film jaialdiaren aurreko edizioan aurkeztutakoak, zeina, azkenean ez zen ospatu). Hautatutako obrek hainbat sari lortu ditzakete, honatx: filmik onenari emango zaion "Punto de Vista" sari nagusia, 10.000 eurokoa; zuzendaririk onenaren Jean Vigo saria, 5.500 eurokoa; eta film laburrik onenaren saria, 3.500 eurokoa. Jaialdiko publikoak filmik onenaren sari berezia ere erabakiko du, 2.500 eurokoa. Epaimahaiak bi aipamen berezi ere egin ahal izango ditu, bakoitza 1.250 euroz hornitua.

Hautapen-Batzordea Josexo Cerdan (jaialdiko zuzendari artistikoa), Gonzalo de Pedro (programazioaren koordinatzailea), Miguel Fernandez Labayen (Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko irakaslea), Elena Oroz (zinema dokumentalean espezializatutako kazetaria) eta Maite Bermudezek (zinemagilea) osatu dute.

Jaialdiko sail lehiakorra osatzeko honako izenburu hauek aukeratu dira: "El modelo". German Scelso. Espainia, 2012. 45'; "Gui aiueo:S. Go Shibata. Japonia, 2011. 56'; "Un mito antropologico televisivo". Maria Helene Bertino, "Dario Castell". Alessandro Gagliardo. Italia, 2011. 56'; "The island of St. Matthew". Kevin J. Everson. AEB. 2012. 69'; "A ll'ombra della croce".



Punto de Vista zinema dokumentaleko jaialdiaren zortzigarren edizioko kartela

Alessandro Pugno. Italia, Espainia, 2012. 73'; "The anabasis of may and fusako Shigenobu", Masao Adachi and 27 Years without Images. Eric Baudelaire. Frantzia, 2011. 66'; "El jurado". Virginia Garcia del Pino. Espainia, 2012. 64'; Apuda de Shouhou (Apuda). He Yuan. Txina, 2012. 145'; Alam laysa lana (A World Not Ours). Mahdi Fleifel Ingalaterra, Libano, Danimarka, 2012. 93'; Vers Madrid (The Burning Bright!). Sylvain George. Frantzia, 2012. 120'; eta Museum Hours. Jem Cohen. Austria, AEB., 106'.

Bestalde, hautatutako film laburrak honako hauek izan dira: Sniegs (Snow Crazy). Laila Pakalnina. Lituania, 2012. 34'; Toma dos. Pilar Alvarez. Kuba, 2012. 11'; Dad's Stick. John Smith. Erresuma Batua, 2012. 6'; The Florestine Collection. Paul Gailiunas, Helen Hill. AEB. 2011. 31'; Hoof, Tooth & Claw. Adam Gutch. Erresuma Batua, 2011. 17'; Handful of Dust. Hope Tucker. AEB., 2012. 7'.

Punto de Vista jaialdiko epaimahaia honako hauek osatuko dute: Christian Von Borries, zinemagile eta musikari alemaniarrek; Bill Brown zinemagile estatubatuarrek; Jose Luis Cienfuegos, Sevillako zinema Jaialdiko zuzendaria; J.P. Sniadecki zinemagile estatubatuarra eta Punto de Vista jaialdiaren azken